

II. ERREPUBLIKA ETA GERRA ZIBILA



6. GAIA. II. ERREPUBLIKA ETA GERRA ZIBILA (1931-39)

1. II.ERREPUBLIKAREN ALDARRIKAPENA

1. Aurrekariak: Alfons XIII.aren azken urteak. Diktablanda. Oposizioa
2. 1931.eko udal hauteskundeak eta III. Errepublikaren aldarrikapena.
3. Behin behineko gobernua eta Ekaineko Hauteskundeak

2. BI URTEKO ERREFORMISTA (1931-33)

1. Zentro-ezkerreko gobernuaren osaera:
2. 1931ko konstituzioa (*iruzkina*).
3. Erreformen programa politikoa: erreformak eta hauei erantzunak.
4. Bi urteko erreformistaren krisia: CEDAren sorrera. Casas Viejas gertaera.

3. BI URTEKO ERRADIKAL-CEDISTA KONTSERBADOREA (1933-35)

1. Zentro-eskuineko gobernua: Errepublikano erradikalak eta CEDA
2. Politika ildo berria: erreformen deuseztatzea
3. Erreakzioak: 1934ko Urriko Iraultzak. Frente Popularraren sorrera.

4. HERRI FRONTEAREN GARAIA (1936)

1. Herri frontearen gobernua.
2. Azken hilabete nahasiak eta Uztaileko gertaerak.

5. ESTATU KOLPEAREN AUREKARIAK ETA KAUSAK. GERRA NAZIOARTEKO GERTAKARI MODUAN

1. Aurrekariak (Calvo Sotoloren heriotza eta gerraren antolaketa). Mola eta Francoren ekintzak: 1936ko Uztailearen 18.a
2. Bandoen osaera, ideologia eta kokapena.
4. Gerra nazioartean ikuspuntutik
5. Bando bakoitzaren kanpo laguntza.

6. GERRAREN GARAPEN MILITARRA

1. 1936. urtea: lurraldetasunaren finkatzea eta Madrilera gertaerak
2. 1937: Iparraldeko kanpaina nazionala (Gernikako bonbardaketa).
3. 1938-39: Ebro haranaren eta Mediterraneoaren konkista.

7. EREMU ERREPUBLIKARRAREN GARAPEN POLITIKO

1. Largo Caballeroren gobernua (1936-1937)
2. Negrinen gobernua (1937-1939)

8. EREMU NAZIONALAREN GARAPEN POLITIKO

1. 1936ko Urria (Franko buruzagi politiko-militarra)
2. 1937ko Apirila (Batasun Dekretua: FET eta JONS-en sorrera)
3. Legislazio frankistaren garapena

9. GERRAREN ONDORIOAK



II. ERREPUBLIKA (1931-36)

1. ERREPUBLIKAREN ALDARRIKAPENA ETA GARAI KONSTITUZIONAGILEA

1. AURREKARIAK: ALFONTSO XIII. AZKEN ALDIA: DIKTABLANDA (liburuko 223-24)

- **Egoera sozio-politiko eta ekonomikoa:** Primo de Riveraren diktaduraren azken garaian, ezinegon soziala orokortu egin zen, tentsioak, han eta hemen lehertuz. Oposizio politikoa klandestinoki geroz eta indar gehiagorekin antolatzen hasi zen, sistemaren demokratizazioa eta diktadorekin amaitzeko gogoz. Militar batzuk ere, diktadorearen kontra altxatu ziren jada 1926rako, huts egin zuena (altxamendu saiakera hau, "San Juanada" izenarekin ezagutzen da). Langileek ere, borroka bideak berreskuratu zituzten eta CNTrekin batera, FAI sortu zen. Aipatzekoa da ere, 1929ko krakaren eraginak iritsi ziren (nahiz eta ondorio nagusienak, jada 1930. hamarkadan somatu).
- **Diktablanda:** Primo de Rivera dimititzean, Dámaso Berenguer militarriari gobernuaren gidaritzara eta osadera agindu zion. Berenguer sistemaren berrikuntza gisa aurkeztu zuen, zin eginez, nolabaiteko irekiera egonen zela (bertatik Diktablanda izena). Gauzek dena den, berdin jarraitu zuten, oposizioaren antolaketa bultzatu zuena:
 - o **Donostiako Hitzarmena (1930.eko Udan):** koroaren aurka eta Errepublika aldarrikatzearen alde zeuden indarren topagune izan zen.
 - Parte hartzaileak: Indar Errepublikanoak (Alianza Republicana-Accion Republicana de Catalunya, Alderdi Erradikala...). Langile Indarrak (PSOE eta CNT-ren ordezkariak). Indar Nazionalistak (katalanak eta galegoak – PNVk ez zuen parte hartu).
 - Harturiko neurri-konpromisoak: Errepublika aldarrikatu eta gorte konstituziogileak eratzeko ekintzak bultzatzea: 1. Ekintza politiko eta propagandistikoa (iritzi publikoa monarkiaren aurka jartzeko ekintzak bultzatzea, prentsa artikuluen bitartez, mitinetan... *ikus fitxa gehigarriak*). 2. Militarren artean, babes lortu eta estatu kolpea antolatu.
- o **Jakako Pronuntziamendua:** Donostiako Itunarekin bat zetozen militarrek, Jacan altxamendu militarra burutu zuten. Honek funtsean porrot egin zuen, koordinazio faltarengatik. Hala eta guztiz ere, garrantzi eta eragin politiko handiko ekintza izan zen, liderrak fusilatu ziren (*ikus power pointa*)
- o **Ondorioak:** Donostiako Hitzarmena eta Jakako Pronuntziamenduak agerian utzi zuten Alfons XIII.aren eta bere sistema politiko autoritarioaren populartasun eza. Krisi politiko latza honen aurrean, Berenguerrek dimititu egin zuen. Alfons XIII.ak aukera izan zuen orduan hauteskundeak deitzeko, hori beharrean ordea, beste militar baten esku utzi zuen gobernuak: Aznar.

2. 1931/04/12-14: UDAL HAUTESKUNDEETATIK ERREPUBLIKAREN ALDARRIKAPENERA

- Giro eta presio soziala geroz eta nabarmenagoa bihurtzen hasia zen. Honen aurrean, Alfons XIII.ari Gorte Konstituziogileak deitzeko aholkua egin zioten (1876ko konstituzioaren arabera, erregeari zegokion hau egitea). Azkenik, hauteskunde deialdiak egiteko plangintza egin zen: lehenengo udal

hauteskundeak deituko ziren eta ondoren,Parlamentua eratzekoa. Erregearen eta gobernu kideen helburua honakoa zen: Monarkia Parlamentarioaren aldarrikapena. (*Liburuko 274.orrria*)

- 1931ko Apirilaren 12an Udal Hauteskundeak deitu ziren (gizonezko sufragio unibertsalaren bidez). Hauetan,bi indar nagusi lehiatu ziren aurrez aurre:monarkikoak eta errepublikanoak. Udaletxe garrantzitsu gehienetan,indar errepublikanoak atera ziren garaile (*ikus,power pointa*).
- Apirilaren 13an,Eibarren II.Errepublika aldarrikatu zen eta honi jarraituz,bestelako udaletxe askotan ere Errepublika proklamatu zen. Francesc Maciak (lider katalan nazionalistak),Errepublika Katalan Independentea aldarrikatu zuen (Iberiar Errepubliken estatuaren barruan). (*Ikus power pointa*)
- Giro honetan,1931ko Apirilaren 14ean, Alfontso XIII.ak bere dimisioa aurkeztu eta erbestera ihes egin zuen (militarren gehiengoak bere alde borrokatuko ez zuela jakin zuenean).(*Ikus power pointa*)

3. II. ERREPUBLIKAREN ALDARRIKAPENAK IZANDAKO HARRERA

- Gizartearen **gehiengoak, begi onez eta ilusio handiz hartu zuen II.Errepublikaren aldarrikapena**. Izan ere, sektore sozial asko sistema berri eta erreformen beharrea zegoen.Langile mugimenduaren gehiengoak ere,harrera ona egin zion Errepublikari,nahiz eta Estatu Burgestzat jo eta haien eredu politikotik urrun egon (komunista edo anarkista).
- **Sektore oligarkiko,katoliko eta eskuindarrek ordea,mesfidantza handiz** ikusi zuten erregimen politiko berria. Izan ere,haien pribilegiozko egoera arriskuan ikusten zuten. Maiatzean gainera, antiklerikalismoaren aldarrikapen sozial masiboak egon ziren hiri nagusienetan,hauetan,hainbat komentu,elizen,etab.en erreketak burutu zirela.Hau guztia dela eta,berehala hasi ziren erregimen berria komunismoarekin eta Espainiako balore tradizionalen gainbeherarekin erlazionatzen..

4. BEHIN BEHINEKO GOBERNUA ETA EKAINEKO HAUTESKUNDEAK

- **Behin behineko gobernuaren eraketa**, Batzorde Iraultzaileko kideek,hots,Donostiako Itunaren sinatzaileek, egin zuten:eskuineko errepublikanoek (Alcalá Zamora),zentroko errepublikanoek (Azaña), Sozialistek,(Largo Caballero,Indalecio Prieto),Nazionalista galego eta katalanek... Monarkikoak, Anarkistak,Komunistak eta euskal nazionalistak (besteak beste) kanpo gelditu ziren.
- Behin behineko gobernuaren helburu nagusia,**Gorte Konstituziogileak osatzeko hauteskundeak** deitzea izan zen.Hauek,Ekainaren 28an burutu ziren gizonezkoen sufragio unibertsalez. Emakumeek ezin izan zuten oraingoan bozkatu,nahiz eta hautesle izan ziren eta Parlamentura,lehenengo aldiz Espainiako historian,emakumeen ordezkaritza egon zen: Clara Campoamor,Victoria Kent... Gehiengoak **Alderdi Sozialistek eta Errepublikarrek lortu** zuen. Ezker indarrek, (PSOE, sozialista erradikalek, Acción Republicanak...), II.Errepublikako lehen gobernu demokratikoa eratu zuten.

Gai honetan,eskubi eta ezkerreko alderdiak askotan aipatuko ditugu.Alderdi nagusienak eta hauen funtsezko ezaugarriak behintzat,ezagutu behar dira (*ikus fitxa gehigarriak*). Oro har,hau da argi bereizten jakin behar duguna:

- **Ezkerre**: langileen eta herritar arrunten interesak defendatuko dituzte oro har (sozialistak,komunistak...). Hala ere,egongo dira zentro-ezkerreko alderdi nazionalistak eta errepublikarrak ere,eta hauek, klase ertainetaz kezkatuko dira nagusiki: giza eskubideak,askatasuna eta berdintasuna,etab.
- **Eskuina**: jauntxo,enpresario,Eliza eta oro har,XIX.mendeaz geroztik oligarkia osatu dituztenen interesak defendatuko dituzte.Hauek printzipio tradizionalen defentsan oinarrituko dira: kristautasuna,balore tradizional eta hierarkiakoak,gizarte patriarkala...

2. BI URTEKO ERREFORMISTA (1931-33)

1. HAUTESKUNDEEN EMAITZAK. PARLAMENTU ETA GOBERNU EZKERTIARRA

1931ko Ekaineko hauteskundeen ondoren, lehen Parlamentu Errepublikano eta demokratikoa sortu zen, joera, **zentro-ekzertiarrekoa**. Hauteskundeak PSOE alderdiak irabazi zituen arren, Parlamentuak ezker, zentro eta eskuineko alderdien ordeka bilatu zuen; hau dela eta, gobernu eta aginte karguak, alderdi ezberdinen artean banatu zituzten, (*ikus power pointa*). Kargu politiko gehienak, jada esperientzia eta ibilbide politikoa izandako pertsonak izan ziren.¹

- Errepublikako Presidentea: **Niceto Alcalá Zamora** (Derecha Republicana): presidentea izango da 1936.eko apirilera arte, (Alcalá Zamora Alfontso XIII.aren garaietatik esperientzia politikoa zuen gizona zen Donostiako Itunaren kidea).
- Gorteetako presidentea: Julián Besteiros (sozialista historikoa).
- Gobernu burua: **Manuel Azaña** (Acción Republicana): gobernuburua, 1933.urtera arte. (Azaña II. Errepublikako lider politiko esanguratsuenetako bat izan zen).
- Gobernuko ministeritzak: ministerio nagusienak, **Acción Republicana** eta **Alderdi Sozialisten** artean banatuko dira; PSOE, Erradikal sozialistak, (garai honetan, alderdi sozialista eta marxista ezberdin anitz existitzen ziren). Autonomistek eta nazionalistek ere zenbait kargu hartu zituzten, (*ikus power pointa*).

2. 1931ko KONSTITUZIOA

(liburuko 275.orria)

Parlamentu errepublikano berriaren lehenengo egitekoa, **1931ko KONSTITUZIOA IDAZTEA** izan zen. Konstituzio demokratiko honetan nagusitu egin zen ideologia, zentro ekzertiarrekoa izan zen, (Parlamentuan nagusi ziren indarrena hain zuzen ere). Espainiako historian egondako konstituzio errepublikanoa bakarra da, (I. Errepublikaren garaian ez baitziren konstituzioa argitaratzera iristen). Dударik gabe gainera, ordura arte egondako konstituziorik aurrerakoiena izan zen (baita, orduko Europa mailako aurrerakoienetakoa ere). Hainbat aspektuetan izan zen berritzailea: konstituzio laiko eta guztiz demokratikoa izan zen, (lehenengoz emakumeen sufragioa onartuz, ezen 1869.urteko konstituzioa demokratikoa kontsideratu arren, emakumeak baztertzeko zituen), langileen aldeko artikuluak jasotzen zituen, justizia soziala aldarrikatzen zuen, autonomiak onartzen zituen... (*ikus iruzkina*). Eskuin taldeek zenbait alderdi kritikatu zituzten, laikotasuna eta autonomiekin bat zetozenak batik bat. Artikulu batzuk moldatzeko nahia erakutsi zuten hasieratik eta hurrengo legealdian, (1933-36), saiatu egin ziren, arakastarrik gabe dena den.

¹ II. ERREPUBLIKAN EGONDAKO ALDERDI ETA LIDER POLITIKO NAGUSIENEN INGURUKO INFORMAZIOA; liburuko 276-277.orriak eta gogoan weeblyn dauden power pointa eta dokumentuak kontsultatu

3. GOBERNU EZKERTIARRAREN LEGE ERREFORMAK

(liburuko 278-281)

Lehen gobernuaren estatuko arazo nagusienak konpontzen saiatu egin zen, hots, Errestaurazioaren garaitik ustelduta zegoen sistema politiko, sozial, ekonomiko eta militarra erreformatzea izan zen helburu nagusia. Arazoei bide emateko, neurriak hartu ziren, honetarako erreformen programa politikoa abian jarri zutelarik. Neurri hauetariko gehienak hala ere, arazoei konponbidea ematea baino, berri batzuen iturburu izan ziren. Izan ere, ez zen adostasunik lortuko. Eskuina guztiz kontrariatu zen, haien oligarkia tradizionalaren boterea zalantzan jartzen zelako. Ezkerrak ere, kritika gogorak egingo ditu, neurriak, bigunegiak kontsideratu zituztelako. Erreformatzek bost zutabeetan banatu ziren: nekazaritza, ejertzitza, erlijioa, hezkuntza, autonomiak eta lana, ***(ikus gogoan weeblyko power pointa eta "berrikuntzen eskema" dokumentua)***.

- **Nekazaritza erreforma:** aspaldi konpondu beharreko arazoa zen. Izan ere, egitura latifundista muturrekoa zen eta lurren jabetza, esku gutxi batzuen menpean zegoen (Andaluzia eta Extremaduran batik bat). Journalarien egoera gainera, tamalgarria zen, goseak amorratzen zedela eta ekonomikoki, egiturak oso zaharkituta zedela. Kontuan izanik, nekazaritza estatuko ekonomikaren sektore nagusia izaten jarraitzen zuela oraindik 1930. hamarkadan, produktibitateak oso txikiak ziren. Gauzak honela, lehentasunezko auzia kontsideratu zen nekazaritzaren mailako erreforma abian jartzea. Konponbiderako, Nekazaritza Berrikuntzeko Legea onartu zuten. Arazoa konpontzeko, **Desjabetza Planak** diseinatu ziren (honetarako, Erreformatzeko Institutua eratu zela). Erakunde honek jauntxo handien lur sailak nazionalizatu zituen ondoren, nekazari txikiei errentan uzteko (gizarte klase berri bat eratuz, bere lanaren jabe dena). Plan honek arazo asko ekarri zituen eta bai latifundistak, bai eta journalariak ere, kontrariatu jarri zituen. Ondorioak:
 - Desjabetze planak oso garestiak ziren eta lurren nazionalizazioa oso prozesu motela bilakatu zen (oso journalari familia gutxi lortu zituzten lur sailak). Honek, langile klasea gobernuaren kontra jartzea ekarri zuen eta askok, lur okupazioari ekin zioten.
 - Lur jabe handiek ez zuten inondik inora onartu nahi izan haien lur desjabetzeak (dirutza baten trukean egiten baziren arren). Hauek, eskuineko alderdiekin bat eginik, oposizio gogorra egin zioten Azañaren gobernuari.
- **Erlijio-Hezkuntza erreformak:** Azañaren gobernuaren konbentziturak zegoen, hezkuntza sistema modernizatuz eta alfabetatze tasak altxatuz, Espainiaren atzerapena gainditu eta gizarte berri baten eraikuntza egitea posible izango zela, (hezkuntza eta kultura bazter guztietara eramanez, eta era horretan ere, landa eta hiri guneetako desberdintasun sozialak gaindituz). Gainera, konstituzio laikoa aldarrikatuta, argi zegoen, hezkuntzak ezin zuela erlijioaren monopoliopean jarraitu. Hezkuntza sistema berria eratzeko eta Elizaren boterea mugatzeko helburuarekin, neurri batzuk hartu ziren: neurri sekularrak martxan jartzea, (erlijio ikasgaia hautazkoa bihurtuz, gurutzeak eskola

publikoetatik kenduz...), milaka eskola publiko berri eraikitzea, ehunka maisu berrien kontratazioa, hezkuntza mistoa abian jartzea, curriculum berritzailea... Hezkuntza mailako erreformez gain, bestelako neurri zibilak ere hartu ziren, aipagarriena, dibortzioaren legeztatzea. Ondorioak: Eliza guztiz kontrari azaldu eta gobernuaren kontrako propaganda itzela egiten hasi zen.

- **Erreforma militarra**: ejertzitoaren gehiengoak eskuin joera zuen eta gizartean nahiz politikan, eragin eta botere handia mantentzen zuen. Gainera, Marokoren politika kolonialaz geroztik eta Diktaduraz geroztik, armadak neurri kanpoko dimentsioak zituen (honen mantentzeak, ikaragarriko gastu publikoa inplikatzeko zuelarik). Honi guztiari aurre egiteko neurriak hartu ziren. Helburu nagusienak beraz, gastuak txikitu eta armada Estatu berriaren menpean edukitzea izan ziren. Honetarako, ejertzitua txikitu egin zen (militar asko aurre-jubilatu), militar goi gradu batzuk kendu zituzten, Errepublikari leiala zitzaion taldea eratu zen (Guardia de Asalto), Zaragozako akademia militarra itxi egin zen, etab. Ondorioak: militar askok ez zituzten erreformak onartu eta *Sanjurjo* buru, 1932an *estatu kolpea* ematen saiatu ziren.
- **Autonomia estatutuak**: nahiz eta 1931ko konstituzioa zentralista izan, autonomia mailako estatuaren negoziazioak egiteko bideak onartzen zituen. Autonomia lortzen lehenengoak Katalanak izan ziren 1932an, honetan zer esan handia izan zuela Maciá-ren paperak. Honek jada, Errepublikaren aldarrikapen egunean, *Estát Catalá* aldarrikatu zuen eta azkenean katalanek, II. Errepublika eta 1931ko Konstituzioa onartu zuten haien autonomia estatua bermatzearen trukean. Euskal Autonomiaren prozesua, korapilatsuagoa izan zen, Lizarrako estatutua ez baitzen konstituzioarekin bateragarria, (*ikus power pointa*). Erreforma autonomikoen ondorioak: sektore tradizional, eskuindar eta muturreko espainiar nazionalistak, guztiz kontrari azaldu ziren.
- **Lan erreforma**: Largo Caballero sozialista lan ministroa zela, lan baldintzak erregulatzeko lege aldarrikatu zen. Honetan, lehenengoz langileen eskubide oinarrikoena legez finkatu ziren,; aseguruak istripuen kasuan, amatasuna eskubideak, kontratazio beharra... (*ikus power pointa*)

4. OPOSIZIOAREN ANTOLAKETA

Azañaren gobernuak iraun zuen denbora guztiak, kritikak eta krisiak jasan behar izan zituen. Alde batetik, eskuina aurka izan zuen eta bere egitasmo guztiak gogor kritikatu eta oztopatzen saiatu ziren. Eliza eta Ejertzitua modu aktiboan gobernuaren eta Errepublikaren aurka mugitzen hasi ziren, lehenengoak pulpituetatik eta bigarrenak, "Sanjurjada" bezalako ekintzekin. Bestetik, ezkerrean bertan ere, kritikak gogorrak izan ziren, alderi sozialistetatik baina bereziki, komunista eta anarkisten aldetik. Ondorioak:

- **Eskuin oposizioa berrantolatu eta indartu egin zen**. Eskuinaren sektore handi bat, hasieratik egon zen Errepublikako gobernuaren kontra eta bere jarrera, denborak aurrera egin ahala sendotu egin

zen. Hezkuntza eta lege "antiklerikalak" gehiegizkotzat jo zituzten eta II. Errepublikarekin, Espainiaren gainbehera zetorrela aldarrikatzen hasi ziren. Alderi berriak eratu ziren, (*ikus power pointa*).

- **CEDA:** *Confederación Española de Derechas Autónomas*, Gil Robles buru zuen alderdia. Talde heterogeneoa bazen ere, funtsean komuneko bi printzipio zituzten: erlijio, Eliza eta tradizio Espainiarraren berrespena.
 - **Renovación Española:** Calvo Soteloren buruzagitzapean (monarkikoak, Borboien aldekoak).
 - **Falangea:** gazte falangisten alderdia 1933an sortu zen: Alemaniako Hitler eta Italiako Mussoliniren totalitarismoa goستن zuten. Burua: Jose Antonio Primo de Rivera.
- o **Ezer oposizioa:** II. Errepublikak itxaropen handiak piztu zituen langile klase gehiengoaren artean baina, aldi politiko berriak bat egin zuen mundu mailako ekonomia depresio handiarekin, (New Yorkeko 1929ko krakarekin hasitakoa). Honek gogotik astindu zuen langile klasea, nazioarteko merkaturia blokeatuta, esportazioak jaitsi baitziren eta ondorioz, langabeziak gora egin zuen. Honen aurrean gobernuak ezer gutxi egiterik izan zuen eta harturiko neurriak, ez ziren nahikoak izan denak kontentatzeko. Egoera honetan, langile klaseak manifestatu eta grebak antolatu zituzten eta maiz, gobernu berriaren immobilismoa salatzen zuten. Anarkisten testuinguru honetan, lur okupazioari eta bestelako ekintzei ekin zieten, sonatuena, Casas Viejasekoa izanik.
- **Casas Viejaseko gertaerak:** indar anarkistek, nekazaritza erreformak aurrera egiten ez zuela ikusirik, lur eta herri okupazioari ekin zion, (Cadizeko Casas Viejas kasu). Azañaren gobernuak gogortasunez erantzun zion ekintzari, asaltoko guardia bidaliz eta hildakoak eraginez. Erantzun honek langile indarrak gobernu gogor kritikatzeko ekarri zuen, (baita errepublikarekiko itxaropen eta babes galera ere).

Casas Viejaseko gertaerak, sozialistak gobernutik ateratzea ekarri zuen eta honek, amaiera eman zion bi urteko garai erreformistari.

LABURTU 2 URTEKO ERREFORMISTA ETA BERE PROGRAMA POLITIKOA

- Kokapen historikoa: II. Errepublikako lehen gobernuak, joera ezkertiarrekoa. Presidentea: Azaña. Iraupena: 1931-33
- Garai honen garrantzia: 1931ko konstituzioaren idazkera (aipatu) eta erreformen programa.
- Erreformen helburu nagusiak: sistema berri eta demokratikoa eratzea, konstituzioarekin bat datorrena.
- Erreformak (bakoitzaren inguruan datu klabeak).
 - o Nekazaritza: helburua-desjabetze planak.
 - o Erreforma militarra: helburua-erregimenaren txikitzea.
 - o Hezkuntza-eliza erreforma: sekularizatzeko neurriak, Elizaren indarra txikitzeko helburuz.
 - o Autonomia erreformak: Katalunia eta Euskal Herria.
 - o Lan erreformak: Largo Caballero bideratuak.
- Erreforme ekarritako ondorioak: oposizio zabala:
 - o Militarrek: Sanjurjoko estatu kolpea.
 - o Eskuineko alderdi berrien sorrera: oligarkiaren eta Elizaren interesak babesteko: CEDA
 - o Ezkerra: langileen itxaropen galera eta lurren okupazioa.
- Ondorioak: gobernuak geroz eta zailtasun handiagoak zituen oposizioari aurre egiteko. Casas Viejas-eko gertaeren ondorioz (non, nekazari batzuk hil ziren), Alcalá Zamorak hauteskundeak deitu zituen.

3. BI URTEKO KONTSERBADOREA (ERRADIKAL-CEDISTA): 1933-35

1. 1933ko HAUTESKUNDEAK: ESKUINA NAGUSI. GOBERNU BERRIAREN OSAERA

1933ko Azaroko hauteskundeetan eskuineko alderdiak izan ziren nagusi; CEDAk hauteskundeak irabazi zituen, atzetik Lerrouxen Alderdi Erradikal Errepublikarra izanik. Garaipenaren arrazoi nagusienak:

- Izugarrizko propaganda kanpaina burutu zuten, mezu apokaliptikoak nagusi izan zirela.
- Ezker joeraren abstentzioa nabaria izan zen, batez ere anarkisten artean (aurrekoan ez bezala, ez zuten hauteskunde hauetan parte hartu).
- Emakumeen parte hartze masiboa izan zen. Hauetariko asko, prestakuntza nahikorik gabe, eskuinari botoa eman zioten tokian tokiko elizgizonak eta ugazabek presionatuta (ezkertiarrek, balore katoliko, familiarren eta emakumearen eredu apurtuko zutelakoan).

Indar bozkatuena CEDA izan zen arren, gobernu erradikal errepublikarrek (eskuin alderdiak), osatu zuten, **Alejandro Lerroux** buru izanik. Gehiengo absolutua ez izanik arren, Parlamentuan CEDAren babesarekin kontatu zuten lege proposamenak aurrera ateratzeko. CEDAkoak hasieran ez ziren gobernuan sartu, baina lehen momentutik gobernatzeko nahia erakutsi zuten. Azkenik, 1934. urteko udazkenean, bost ministerio lortu zituzten, iritzi kritikoa astindu egin zuena. (*Ikus liburuko 285 eta web orriko power pointa*)

2. GOBERNU ESKUINDARRAREN NEURRI POLITIKOAK

(*liburuko 285. orria*)

Gobernu eskuindarraren **helburu nagusienak, aurreko politika erreformistekin amaitzea eta tradizio espainiarraren baloreak defendatzea izan ziren**. Honi jarraikiz:

- Erreformak bertan behera gelditu ziren: militarrena eta nekazaritzaren erreformak eten egin ziren.
- Eliza eta militarrei beren posizioa itzuli zitzaie: kolpistei amnistia onartu zitzaie (Sanjurjo espetxetik ateraz) eta Elizak berriz ere, diru publikoa jaso eta hezkuntza eskubideak berreskuratu zituen.
- Autonomiak: gobernu berriak, Euskadiko estatutu prozesua geldiarazi zuen eta Kataluniari, bere autonomia kentzen saiatu zen (1934an lortu zuena).
- Konstituzioa erreformatzeko nahia izan arren, ezin izan zuten aurrera eraman.

Honek guztiak, ezinegona muturreraino eraman zuen, egoera, geroz eta tentsio handiagokoa bihurtuko zelarik. Bai ezkerre, baita eskuina ere, erradikalizatuz joan ziren:

- Langile mugimendua: grebak, mobilizazioak, manifestazioak... eguneroko ogi bihurtu ziren. Hauetariko gehienetan, UGT, PSOE, CNT, FAI... sindikatu eta alderdi politikoek bat egin zuten. Garai hau gainera, krisi ekonomikoaren garai latzarekin bat etorri zen (1929ko krakaren ondorioak inoiz baino bortitzago sumatzen ari ziren). Langileen egoera, lan baldintzak... jasanezinak ziren. Mobilizazioak errepresioz zanpatuak izan ziren, (horregatik, bi ureko beltza ere deritzo etapa honi).

- Alderdi nazionalistek ere, oposizio handia erakutsiko dute gobernu eskuindarraren jarrera zentralista eta autoritarioarekin eta mobilizazioak deituko dituzte. Kataluniak ez ditu parlamentu zentralaren zenbait agindu beteko, (hala nola, nekazaritza erreformarekin zer ikusirik zutenak).
- Eskuineko alderdi asko joera autoritario eta faxistengana hurbiltzen hasi ziren. Kontuan izan behar dugu, Europako zenbait toki totalitarismoaren biktima zirela jada, (Hitler, Mussolini, Salazar..). Gobernuko alderdi kideek maiz, joera autoritarioak hartu zituzten eta faxismoaren zenbait praktika publikoki defendatzera iritsi ziren ere.

3. 1934ko IRAULTZAK (ASTURIAS ETA KATALUNIA)

Egoera honek, 1934. urtean eztanda egin zuen, CEDAko beste kideak gobernuan sartzearekin batera. Gil Roblesekin gerra ministerio eskuratu zuen eta Franco armadako buru nagusi. CEDA faxismoarengandik hurbil egon zitekeen beldurrez eta honengatik protesta egiteko grebak eta manifestazioak deituak izan ziren, **1934ko URRIKO IRAULTZAK** deritzonari bide eman ziotenak. Iraultza saiakerak bi gune eta izaera desberdin izan zituzten; bata, **Asturiasen** (langileen errepublika sozialista aldarrikatuz) eta bestea, **Katalunian** (Kataluniako errepublika aldarrikatuz). (*Ikus power pointa eta liburuko 286-87. orriak*).

- **ASTURIASEKO IRAULTZA:** nagusiki meatzariak bideraturiko iraultza saiakera izan zen, sozialistek, anarkistek zein komunistek babesturikoa. Iraultza soziala aldarrikatuz, herritarrek guardia zibilen kuartelak, meategiak, fabrikak... hartu zituzten eta Asturiaseko Errepublika Sozialista aldarrikatu zuten. Egun batzuen buruan zenbait tokitan batzar iraultzaileak nagusitu ziren, baina gobernu zentralak aginduta, Afrikako legioa (Franco buru zela), Asturiasera mugitu egin zen saiakera iraultzailea erreprimitzera. Aste luze beteko enfrontamenduen ostean matxinoek amore eman zuten. Asturiaseko gertaerek ondorio larriak utzi zituzten, milaka hildako eta askoz ere atxilotu zein zauritu gehiago izan zirelarik. Gertaerek gobernuaren muturreko errepresioa agerian utzi zuten, ezker indarren oposizioa areagotuz eta haien diskurtsoak erradikalizatuz.
- **KATALUNIAKO IRAULTZA:** Kataluniako klase politiko zuzendariak, (Companys Generalitateko presidentea lider izanik), Kataluniako Errepublika aldarrikatu egin zuen, (Espainiar errepublika federalaren barruan). Modu honetara, gobernu eskuin-cedistari eta hauen politika zentralistari hordagoa botaz. Aldarrikapenarekin batera greba orokorra deitu egin zen Katalunian lider politikoei babesa erakusteko. Asturiasen modura, gerra egoera deklaratu zuen gobernu zentralak eta ejertzitza bidali egin zuen matxinada erreprimitzera. Honekin bat egindako politikari gehienak kartzelatuak izan ziren, (Companys barne) eta Kataluniaren autonomia bertan behera utzi zuten.

Urriko iraultzaren izenarekin ezaguturiko gertaerek **ondorio nabariak** utzi zituzten;

- Gobernuak geroz eta jarrera autoritario eta erradikalagoa hartu zuen. "Iraultza Marxista" ekiditeko arduraren aitzakiarekin, faxismoarengana hurbildu ziren eta Parlamentuaren ekintza demokratikoa askotan, eten egin zen.
- Falangea bezalako alderdiak goratu egin ziren, geroz eta kide gehiago biltzen hasi zirela

- o Ezkerreko indarrak, uholde faxistari aurre egiteko eta II. Errepublika demokratikoa salbatzeko, bat egin zuten. Azañak 1935. urtean, **Frente Popularra** izeneko koalizioa aurkeztu zuen. Honetan, zentro-ezkerreko errepublikanoek, sozialistek, komunistek, nazionalista galego eta katalanek... bat egin zuten. Langile mugimendua ere batu zitzaion. Izan ere, momentu honetan, helburu nagusia ez zen jada langile iraultza burutzea, faxismoari aurre egitea baizik. Borroka nagusia jada ez zegoen langile eta burgesen artean, faxismoaren eta demokraziaren artean baizik. Anarkistek ere, estrategia berri hau babestu zuten.

Gizarte eta politika geroz eta polarizatuagoak zeuden: ezker eta eskuineko muturretan antolatua, alegia. Testuinguru honetan gainera, Leorruxe gobernu buruaren alderdi kide asko, ustelkeri kasuetan inplikatuak izan ziren, eskandalu publikoa bilakatu. Tentsio politiko eta sozialen giro honetan, Lerroxe azkenean dimititu egin zuen eta Alcalá Zamora presidentea **1936ko Otsailaren 16an hauteskundeak** deitu zituen.

4. HERRI FRONTEAREN GARAIA (1936)

1. 1936ko HAUTESKUNDEAK: EZKERRA GARAILE: Fronte Popularrean batuta (liburuko 290)

1936ko Otsaileko hauteskundeak ezker koalizioak irabazi zituen, alegia, Frente Popular edo Herri Fronteak, nahiz eta diferentzia txikiarekin izan (Botoen %48a ezkerretan lortu zuen, botoen %46,5ak eskuinak eta soilik %5,4ak eman zion botoa zentroari). Herri Fronteari blokean aurkeztu izanak abantaila eman zion. Hauteskunde kanpaina gainera, adosturik zuten programa defendatu zuten: 1934ko iraultzan atxiloturiko presoentzako amnistia, arrazoi politikoengatik lanpostuetatik kaleratuak izandako pertsonen lanpostuak berreskuratzea, erreformen lege proposamenak berriz ere indarren jartzea, etab. Ezker koalizioak arrakasta itzela izan zuen. Aipatu beharra dago, CNTk ez zuela itunean zuzenki parte hartu, baina ez zuen ere abstentziorik eskatu oraingoan eta anarkista batzuk, Herri Fronteari botoa eman zioten. **Eskuineko alderdiek** ere, koalizioak eratu zituzten, nahiz eta hau, ez zen uste bezain arrakastatsua izan. Izan ere, ez ziren gai izan hauteskunde-programa batu bat diseinatzeko eta hautagaitza bakarra osatzeko gai. Modu guztiz, CEDAk emaitza onak lortu zituen (bigarren indarra izanik sozialisten atzetik). **Katalunian** gehiengo ERCK jaso zuen (ezker errepublikano nazionalistak). **Hego Euskal Herrian** EAJ (eskuin nazionalistak) eta Karlistek (eskuineko alderdi erradikalek gertu zeudenak) irabazi zituzten, lehenean Erkidegoan eta bigarrenak Nafarroan garaile atera zirela (*Ikus grafiko iruzkina*)

Frente Popularraren programan sinatutakoarekin bat, gobernu berria errepublikarrez bakarrik osatu zen (Ezker Errepublikanoa eta Batasun Errepublikanoa). Sozialistek eta koalizioko gainerako alderdiek ordea hitza eman zuten, Parlamentuan gobernuaren ekintzak babestuko zituztela. Gauzak honela, gobernu berriaren **burua Manuel Azaña** izan zen. Boterera iristean, **amnistia dekretatu** zuen aurreko garaian espetxeratutako preso guztientzat (hauteskunde kanpaina zin egin zuen bezala).

Fronte Popularreko gobernuaren asmo nagusia, bi urteko progresistan eginiko **erreformen politika berreskuratzea** izan zen: Kataluniako autonomia berreskuratuko da, nekazaritza erreforma berriz ere abian jarriko da... Hala ere, krisi sozial eta ekonomikoa ez zen guztiz gainditzen eta langileen protestek jarraitu zuten: grebak, lur okupazioak...

Sektore eskuindarrak egoera berriaren kontra agertu ziren eta askok, ez zituzten gobernuaren neurriak onartu. Elizak, oposizio eskuindarrak, etab. Errepublikaren aurrakako kanpainak sustatu zituzten. Talde falangistek gainera, patruila armatuak osatu zituzten eta enfrentamendu zibilak eraginez eta giro politikoa neurrigabe inarrosi edo astinduz (ezkerreko militanteen kontrako ekintza zuzenak abiatuz, etab.). Ezker-eskuindar taldeen arteko enfrentamenduak ohikoak izan ziren zenbait hirietan.

1936. urteko udaberriaz geroztik, **Errepublikaren kontrako konspirazioa militarrek** antolatzen hasi ziren. Izaera faxistetako taldeek ekintza zuzen eta bortitzak antolatzen hasi ziren eta militar batzuk ere, konspirazio lanetan hasi ziren. Ekintza hauen aurrean eta gobernu errepublikarraren xede nagusia Errepublika salbatzea izanik, alderdi eta talde faxista batzuk, legez kanpo utziko dira (*ikus fitxak*).

Giro nahasi liskartsu honetan, Alcalá Zamorak bere kargua utzi eta **II. Errepublikako presidentea Azaña** izendatu zuten. Gobernuaren buruzagitza, *Martinez Barriosek* hartu zuen. Hilabete gutxiren buruan gerra zibila piztuko zen.

Gerra piztearen bezperan (uztailean), pistolero batzuek (antza denez, Calvo Sotelo monarkikoaren jarraitzaileak), Errepublikari leiala zen teniente bat hil zuten. Tenientearen lankideak honen aurrean, **Calvo Sotelo parlamentarioa hil zuten**. Honek, tentsioak muturrera eramane zituen eta militar kolpistek, hilabeteak prestatzen aritutako estatu kolpea martxan jarri zuten. Arkitektoa: Emilio Mola (*ikus fitxak*). Militarrek hasitako gerra zibila 1936. urteko Uztailaren 18an, Estatu Espainiarrean bizi izan den gerrarik krudel eta ankerrenetako bat izan zen. Gerrak gainera, bide eman zion ia 40 urtez iraungo duen diktadura gogor eta errepresiboari, alegia, Francoren diktadurari. Ideologia errepublikano, demokrata, nazionalistak, ezkertiarak, etab. terrorearen, errepresioaren, fusilamenduen... bideetatik zanpatuak izango dira. Gerrak, herritarren bizitza eta oroimen historikoa baldintzatu egin zuen eta zoritxarrez, oraindik baldintzatu jarraitzen du.

GERRA ZIBILA (1936-39)

5. ESTATU KOLPEAREN AURREKARIAK ETA KAUSAK.GERRAREN

GERTAKARIAK NAZIOARTEAN IZANDAKO OIHARTZUNA

5.1. GERRA ZIBILAREN AURREKARIAK ETA KAUSAK (liburuko 298. orria)

Gerra Zibilaren bezperako giro politiko eta soziala tentsua zen. Izan ere, gizarte espainiarra geroz eta polarizatuagoa zegoen ezker eta eskuin joeren artean. Hala eta guztiz ere, argi gelditu behar da, tentsio sozial hauek guztiak ez zirela gerraren pizgarria izan. Gerra piztu zuena militarren estatu kolpea izan zen.

Sektore eskuindar kontserbadoreenek ez zuten ezkerren garaipena onartu nahi izan. Ez zuten alegia, *Herri Frontearen* gobernuaren errespetatu eta militarrek honen aurrean, kolpea antolatzen hasi ziren. Konspirazioaren helburua argia zen: oligarkia tradizionalaren interesak (Elizaren, terratenienteen, Elizaren...) eta Espainiako orden tradizionalaren defentsa egitea. Modu berean, falangea eta bestelako talde ultraeskuindarrak ekintza zuzenak burutzen hasi ziren gobernu berria ezegonkortzeko asmoz. Talde politiko eskuindarrek ere, (CEDA eta "Renovación Española" kasu), mezu eta oposizio apokaliptikoa burutu zuten, Herri Frontearen gobernu marxismoarekin, komunismoarekin eta iraultza sozialarekin lotuz (errealitatearekin bat ez zetorrena). Langile mugimenduaren partetik ere, udaberria agitatua izan zen, grebak eta mobilizazioen deialdia ohikoa izan zelarik. Hauetako askok, izaera antiklerikala izan zuten.

Giro honetan, Alcalá Zamorak dimittitu zuen, Azañak hartuz II. Errepublikako presidentzia. Modu berean, gizartea geroz eta gehiago bereizi egin zen, Fronte Popularrarekin bat egiten zutenen eta eskuindarren planteamenduekin bat egiten zutenen artean. Giroa are gehiago nahastu eta okertu egin zen Guardia de Asaltoko tenientearen eta Calvo Soteloren erailketekin. Azken honen heriotzaren aurrean, 1936ko San Ferminetan Molak (momentu horretan Iruñeko gobernadore militarra zenak), kolpearen nondik norakoak itxi zituen. Honetarako, karlisten babesa lortu zuen (Iratxeko monasteriotako bileretan). Mola eta Karlisten hartu emanez, Lizarrako alkate zenak (F. Agirrek) gobernu zentralari abisu eman arren, ez zuten Mola susmagarritzat jo.

5.2. GERRA ZIBILAREN LEHERKETA ETA BANDOEN ANTOLAKETA (liburuko 299. orria)

- Estatu kolpearen antolaketaren burua jada aipatu legez, **Emilio Mola** izan zen, garai hartan, Iruñean destinatua zegoela. Estatu kolpea, **Uztailaren 18** eta **19**an gauzatu zen.
 - o Afrikako soldaduen matxinada: Uztailaren 17an, Afrikan zeuden soldadu espainiarrak Errepublikako gobernu legitimoaren aurka altxatu ziren. Hurrengo egunean, Uztailaren 18an, **Frankok** Molaren instrukzioei jarraikiz, Kanarietatik Melillara abiatu zen eta **Altxamendu nazionala aldarrikatu** zuten.

- Penintsulako beste hainbat guneetako militarrek ere, egun horretan bertan altxatu ziren: Queipo del Llano Sevillan... (Sanjurjo ere, Portugaletik sartu zen Penintsulara).
- **Mola jeneralak Gerraren Aldarrikapena** egin zuen Nafarroan zegoela. "Estado de Guerra" delakoaren deklarazioa, Diario de Navarra argitaratua izan zen eta bertan, gogor etsaien kontra egin behar zela adierazten zen.
- Militar matxinoek pentsatzen zuten kolpea eman eta hurrengo egunetan, gobernu kontrolpean izango zutela. Baina erresistentzia handia izan zen lehen momentutik eta gune asko Errepublikaren alde egin zuten, bereziki industria eta latifundio handien gune zirenak, (Asturias, Bizkaia, Katalunia, Valentzia, Madrid, Andaluziako gune gehienak...). Honen aurrena, eta demografikoki eskualde xumeenak bakarrik kontrolatzen ez zituztela ikusita (Gaztela Leon, Nafarroa, Errioxa, Araba...), bando nazionalak gerra hasi zuen. Modu honetara, **militarren altxamenduarekin hasitako matxinada, gerra zibila bilakatu** zen.

5.3. GERRA ZIBILAK NAZIOARTEAN IZANDAKO OIHARTZUNA (liburuko 300. orria)

Espainiako Gerra Zibila Europan jada zegoen konfrontazioaren lehen eszenatokia izan zela esan genezake. Alegia, faxismoaren, komunismoaren eta demokraziaren arteko lehendabiziko gerra. Espainiako gertaera belikoa Europa mailan oihartzun handia izan zuen eta mundu osoko komunikabide, agintari, iritzi publiko, etab-en jakin-mina piztu zuen

Oro har, munduko langileria eta Europako iritzi publikoa, Bando Errepublikarraren alde azaldu zen, alegia, askatasunaren eta demokraziaren aldekoekin bat egin zuen. Estatu totalitario aleman eta italiarrak militarrekin bat egin zuten kontrari. Eta Europako demokrazia kontserbadoreek (Britainia Handia, Frantzia) zalantzak izan zituzten publikoki baten edo bestearen alde egiteko. Izan ere, altxamendua, komunismoaren hedapenari fretoa jartzeko bidea izan zitekeela pentsatu zuten hasiera batean. Honez gain, Europako demokrazia tradizionalak, Ingalaterra eta Frantziak, gerra lokal bat mundu mailako gerra bihurtzeko beldurra eta aitzakiarekin, Espainiako II. Errepublikari laguntza bidaltzeari uko egin zioten. ***Esku ez hartzearen aldeko batzordea*** eratu zuten 1936ko abuztuan (zeinari 27 estatu atxiki zitzaion). Batzorde honek, Espainiako estatu errepublikano legitimoari armen salmenta eta laguntza militarra ukatu zion.

- **Bando Nazionala:** Hitler eta Mussoliniren laguntza eskuratu zuen, (baita Portugalena ere). Alemaniak II. Mundu Gerran erabiliko zuen armamentua proban jartzeko erabili zuen Espainiako gerra zibila. Alemaniak nagusiki, armamentuan eman zion laguntza (Condor Legioa). Italiak elikagai eta soldaduak bidali zituen batez ere, (Italiatik etorritako gazte faxistak).
- **Bando Errepublikanoak:** bereziki, **SESB** Stalinistaren laguntza jaso zuen. Sobietar Batasunetik, armamentua bidali egin zen, (zaharkitua dena den, I. Mundu Gerraren garaikoa). Trukean, Espainiako *urte erresebak* eraman zituen.
- **Nazioarteko brigada antifaxistak:** Ezinbestean aipatu beharreko beste kanpo laguntza bat, Europako gazte brigadistena izan zen. Kalkulatzen da, ia 100.000 pertsona etorri zirela boluntario faxismoa

garaitzeko helburuarekin,(gehienak,ingelesak eta italiarrak).Hauen parte hartzea garrantzi handikoa izan zen,batez ere,Madrileko defentsan.Hauetariko gazte asko,ondoren II.Mundu Gerran aritu zen.

6. GERRA ZIBILAREN GARAPEN MILITARRA

Lehen hilabetea, bandoen antolaketa garaia izan zen,nork bere indarrak batu eta ejertzitoak osatzeari ekin ziolarik.Hasieran bazirudien altxatutakoen indarra txikia zela,izan ere,ekonomikoki eta estrategikoki garrantzi gutxiko gunek kontrolatzen zituzten:Nafarroa, Araba,Galizia,Salamanca, Aragoi.... Errepublikak kontran, nekazaritza,industria eta populazio gehien zituen guneei eutsi egin zien:Madrid, Katalunia, Valentzia, Murtzia... Alabaina,nazionalak gogor eraso egin zuten lehen momentutik. Izan ere, kontuan hartu behar dugu,Mola agindu bezala, nazionalak indarrez eta krudelkeriaz ekin ziotela (etsaiak akabatzeko helburuz).Gauzak honela,1936ko udan haien nazionalak aldarrikatutako guneean, errepublikanoak txikitu egin zituzten (Nafarroan esaterako).

Nazionalen helburua gerra arin garaitzea zen eta honetarako,Madrid,hots,hiriburua eta gobernuaren egoitza,hartu beharra zegoen.

Nazionalak (Mendebaldea)

- Galizia
- Gaztela-Leon
- Extremadura
- Andaluzia (Mend)
- Araba
- Nafarroa
- Aragoi (iparraldea)



Errepublikanoak (Ekialdea)

- Madrid
- Katalunia
- Valentzia
- Andaluzia (ia osoa)
- Murtzia
- Euskal Erkidegoa
- Aragoi (hegoaldea)

- **1936.urteko uda:**itsasartea gurutzatuta, nazionalak **Badajoz** hartu zuten lehenengoz. Extremadura menderatuta, **Toledora** abiatu ziren (*Alkazarra* hartzeko helburuz,zeinean,militar matxinoek erresistitzen zuten). Udazkenean **Madrid hartzeko saiakerari** ekin zioten.Baina ezinezkoa izan zuten Madrid hartzea, madrildarrek (nazioarteko brigada boluntarioen laguntzaz) gogor eutsi ziotelako eraso nazionalari (*ez dira pasako* lemapean). Gobernu errepublikanoaren egoitza modu guztiz, Madrid okupatua izatearen beldurrez,Valentziara lekualdatu zuten. Madrid hartzea ezinezkoa izan bazuten ere,hiriburua inkomunikatuta uzten saiatu ziren Guadalajara hartzean.Setio honetan,guda sarraskitsu eta odoltsu asko egon zen,haien artean aipagarria izanik,*Jaramako Guda*.

- **1937.urtea.Iparraldeko konkista:** Madrid hartzea ezinezkoa zela ikusita,estrategia berria garatu zuen bando nazionalak.Iparralde osoa kontrolatzeko helburuari jarraituz,efektibo guztiak Kantaurira abiatu ziren.Xede nagusia,Bilbo hartzea zen,alegia,estatuko portu eta gune industrial nagusia.Euskal nazionalista eta sozialistek,armada osatu zuten baina espero ez zuten eraso jaso zuten: Condor Legio naziaren bonbardaketak. 1937.urteko Apirilean,Durango eta Gernika txikitu zituzten.Honez geroz,Bilbo eta Asturias (industria eta meatzaritzaren bastioiak) erraz erori ziren.

- **1938.urtea.Ebro eta Mediterraneoaren konkista:** Iparraldea kontrolatuta,Ebro haranaren konkistari ekin zioten.Enfrentamendu latzenak, Teruelen eman ziren:Ebroko Guda izeneko enfrentamendu hauek, izugarriko kaltea eragin zioten bando errepublikanoari: bajak,gosea,armamentu falta,indar falta...Teruel eta Castellon hartuta,Valentzia erraz hartu zuten (gobernu errepublikanoaren sede izandakoa ordura arte).Soilik Bartzelona falta zitzairen.Nazionalak Bartzelonara iritsi orduko,jende askok jada Frantziara ihes egin zuen (gobernua barne).Erresistentzia txikia topatu zuten. Azken hiria erortzen, Madrid izan zen,1939eko Apirilaren 1ean:Gerra Zibilaren amaiera data ofiziala.

7. EREMU ERREPUBLIKARRAREN GARAPEN POLITIKOA

Errepublikanoak gerrak ustekabea harrapatu zituen eta honek, erreakzionatzeko zailtasunak eragin zituen. Inork ez zuen imajinatu ere egiten,altxamendu militar batek, hiru urteko gerra ankerrari hasiera emango ziola;are gutxiago, II.Errepublikako erregimena abolituko zela.

7.1. GERRA ZIBILAREN LEHERKETA ETA BANDOEN ANTOLAKETA

Nahiz eta hasieran egoera errepublikanoen alde egon, ez ziren nazionalak bezain azkar antolatu eta barne arazo ezberdinei aurre egin behar izan zieten Bando errepublikanoaren eta gerra beraren garapena ulertu ahal izateko,ezinbestean honako datuak hartu behar dira kontuan besteak beste:

- Ez zuten kolpea espero eta ez zeuden prestatuta honi aurre egiteko.
- Gobernuak,zailtasunak izan zituen hasieran,indar guztiak norabide berean koordinatzeko. Lehenengo asteetan egoera nahasia izan zen eta nork bere borroka partikularra garatzeko aukerak ikusi zituen.Komunistek,komiteak eratu zituzten eta bide iraultzaileak jorrazteko ekintzak antolatu zituzten (lur eta fabriken okupazioak eta kolektibizazioak eginez).Nazionalistek ere,aukera bikaina ikusi zuten independentismora jotzeko,etab. Errepublikaren aldeko lurraldeetan,altxamenduak **iraultza giroa** hedatzea eragin zuen, iraultza soziala aurrera eramateko eszenatoki ezin hobea luzatu baitzuen.
- Ejertzitoarekiko konfiantza eza: armada antolatu beharra zegoen baina zailtasun handiak egon ziren honetarako,izan ere,militar askorenganako susmoak zeuden.

Arazo eta deskoordinazio falta honen ondorioz,denbora galdu zuten,matxinatuen aprobeixatu zutena. Abuztuaren lehen egunetarako,Franco eta Afrikako armada jada Penintsulan zeuden eta nahiko errez,Cadiz,Sevilla,Jaen eta Huelva hartu zituzten.

Hasierako hilabeteetan beraz,(uztailetik-irailera), kaosa eta adostasun falta nagusitu zen bando errepublikarraren barnean.Honen adibide da,1936ko udan bi gobernu buru ezberdin izendatu izana (Mtz.Barrio eta Giral).Giro nahasi honetan,talde bakoitzak bere kontu aritu zen,inolako batasunik gabe.Antolaketa politikoa eta ejertzitoaren antolaketa beharrezkoak ziren.Azkenean,udazkenean, *Largo Caballeroren* gobernua eratu zen.

7.2. LARGO CABALLEROREN GOBERNUA (1936ko irailtik-1937ko maiatzera)²

Gerrari aurre egiteko, gobernuburu berriak, **koaliziozko gobernu zentral eta batu** bat osatu zuen. Honetan, alderdi politiko eta sindikatu guztien ordezkariak bildu ziren, (sozialistak, errepublikanoak, anarkistak—*historikoa*—, nazionalistak, UGTko kideak...). Madriden erasoan aurrean, gobernu Valentziara aldatu zuten. Honez gain, **armada popularra** sortu zen, milizia eta militarrez osaturiko brigada mistoetan oinarriturikoa. Hau ordea, ez zen gai izan Kantauriko eremuari eusteko.

Largo Caballeroren gobernu dena dela, arazoz eta desadostasunez beteta egon zen. Batzuk, Caballeroren gerra gestioa kritikatzeko zuten, anarkistek maiz bere kontu jarduten zuten, eta batzuk gerrari lehentasuna eman nahi zioten, besteek ordea, iraultza sozialaren oinarriak finkatzeari. Barne krisi hauek guztiek Bartzelonako gertaerekin ez-tanda egin zuten. Bartzelonan krisi latza bizitu zen 1937ko maiatzean, hain zuzen ere, Generalitat kontrolatzen zituzten ERC, UGT zein sozialisten eta anarkisten zein POUM (talde marxistaren) artean. Lehenengoek gerrari aurre egitea lehentasunezkoa zela uste zuten, bigarrenek ordea, iraultza emateko aukera aprobetxatzearen aldekoak ziren. Haien arteko enfrontamenduetan, 200 hildako egon ziren.

7.3. NEGRINEN GOBERNUA (1937ko maiatzetik – 1939ko martxora)³

Egoerari eutsi eta aurre egiteko, gerra ministro berria izendatu zuen Indalecio Prieto. Gobernu indartsu eta egonkorra eratzeko helburuarekin, sindikalistak agintetik kanpo utzi ziren, herria militarizatu zen eta armada berrantolatu zen. Hala ere, Bando Errepublikanoaren egoera geroz eta okerragoa zen. Honen aurrean, Negrinek, *negoziazio bideak* ireki zituen Frankorekin.

- o **Negoziazioa:** Frankorekin bakea sinatzen ahalegindu zen. 1938an, 13 puntuko programa aurkeztu zion, Frankok onartu ez zuena. 1939an, jada desesperatuak, 3 puntuko bake proposamena egin zion (Errepublika, Demokrazia eta askatasuna printzipioak errespetatzeko eskaerarekin). Frankok hau ere ukatu egin zuen.
- o **Erresistentzia eta itxaropena:** gerra galtzear zegoela eta ikusita Frankok ez zuela bakerik negoziatuko, itxaropen bakarra zegoen: erresistentzia. Izan ere, Europan, faxismoaren kontrako gerra edozein momentuan lehertuko zela agerikoa zen eta Errepublika salbatzeko modu bakarra, Espainiako Gerra Nazioarteko Gerran integratuta gelditzea zen. Modu horretara soilik jasoko zituen Espainiak Gerra Zibila irabazteko beharrezkoak zituen laguntzak. Ezinezkoa suertatu zitzaien ordea erresistentzia. Apirilean, Frankoren garaipena egiaztatu zen. Irailean, II.M.G hasi zen.

² Gerra Zibil osoan zehar, Errepublikako presidentzia **Azañak** izanzen du. Gobernu buruzagitzaren ordea, PSOE-ren ordezkariak izanzen dute.

³ **Negrin:** sozialista.

8. BANDO NAZIONALAREN GARAPEN POLITIKOA

Bando nazionala berehala antolatu zen,jada,hilabeteak baitzeramaten kolpea antolatzen. Hainbat faktorek erraztu zuten antolaketa azkarra:

- Militarrek gidatutako altxamendua izan zen (ez politikoek).Militarren arteko hierarkia eta gorenekoei obediencia antolaketa azkar eta eraginkorra izatea erraztu zuen.
- Oso azkar,koartada ideologikoa bilatu eta indarrak batu zituzten: nazionalak gerra zibilari izaera erlijiosoa eman zioten.Errepublika erregimen komunista,antikatoliko eta ateoak bailitzan aurkeztu zuten eta gerra,kristautasunaren defentsarako gurutzada moduan. Gerraren lehen egunetan gainera, gune errepublikano askotan elizgizonen fusilamenduak eman ziren (Jaramako hilketak aipagarrienak izanik).Hilketa hauei,errentagarritasun propagandistiko handia atera zieten.
- Nazionalak,fede katolikoaren,balore tradizionalen eta aberri Espainolaren defentsaren aldeko gerra egin beharra zegoela aldarrikatu zuten."Una España Grande,Libre,Unida y Católica" lemapean,indar monarkikoak,karlistak (reketeak), falangistak... matxinatuen alde lerrokatu ziren. Gerra hasi aurretik gainera, indar politiko hauen laguntza eta babes adostuta zuten.

Frankok hasieratik protagonismo handia eskuratu zuen eta Gerra Zibilaren bukaerarako,jada Espainiako diktadorea bihurtu zen.Gerra garaian halaber,Spainia Berriaren oinarriak finkatuz joan ziren.Alegia,ia 40 urtez iraungo duen Erregimen Frankistaren instituzionalizazioa hasi zen.

1. **Buruzagi politiko-militarrak:** 1936.urteko Urrirako,Franco bando nazionalaren buru politiko eta militarra izendatua izan zen.1936-37.urteetan zehar,bere autoritarismoari fretoa jartzen ahal zioten militarrek hil ziren: Sanjurjo (1936ko uztailean bertan,hegazkin istripuz),Primo de Rivera (azaroen errepublikanoek fusilatua), Mola (hegazkin istripu susmagarrien 1937ko uztailean),etab. 1936ko urriaren 1rako jada, **Francisco Franco Espainiako Estatuko Gobernuburu** eta **Armadaren Generalísimo** izendatu zuen dekretua onartua izan zen. Franco jada buruzagi nagusi izendatua, Burgosen ezarri zen Gobernuak.
2. **Batasun Dekretua (1937ko Apirilean):** pluralismo politikoa deuseztatu eta alderdi politiko bakarra onetsi egin zen: **F.E.T. y J.O.N.S.** (*Falange Española Tradicionalista de las Juntas Ofensivas Nacional Sindicalistas*).Honetan,kausa nazionalarekin bat egindako alderdi nagusienak batu ziren,alegia,Falangea eta Karlistak (Tradionalistas).Jakina,alderdiaren burua eta indar guztien arteko bitartekaria,Francisco Franco bihurtu zen.Hemen hasi zen Diktadura osoan zehar indarrean egongo den Totalitarismo politikoa.
3. **Bestelako legislazioa:** Gerra lehiatzen ari zela,Frankok Erregimen politiko berria diseinatzen jarraitu zuen.1938.an *Lanaren Forua* dekretatu zuen (inspirazio guztiz faxista zuena),*Ley de Responsabilidades Políticas* delakoa ("gorriak" zigortzeko),etab.

9. GERRAREN ONDORIOAK

Gerra Zibila espainiar gizarteak XX.mendean bizitako esperientziaren eta sarraskirik nagusienetako bat izan zen.Hiru urteetan zehar,bizilagunak eta familia bereko pertsonak elkarren kontra borrokatzen aritu ziren.Biztanle askoren artean,elkarri hiltzeko gosea eta gorrotoa nagusitu egin ziren.Nahiz eta aipatu beharra dago ere,gizon asko eta asko,gerrara behartua joan zela,egoerak bultzatuta. Gerrak utzitako ondorioen artean:

Hildakoak: *miloi erdi pertsona hil* zela kalkulatu da,gehienak zibilak.Borrokan jende asko hil zen baina,heriotza anitz ere,mendekuz eginikoak izan ziren.Kartzelatan ere,jende asko hil zen. Gerra amaitzean,beste 250.000 pertsona atxilotuak izan ziren,hauek asko kartzelatan fusilatuak izan zirela. Gerra amaitzeak ez zuen errepresioaren amaierarik ekarri.1936 eta 1975 urte bitartean,osotara 800.000 bat biktima egon zela kalkulatu da.

Erbestera:gerraren amaieran,errepublikarren alde borrokatu ziren milaka pertsona,eta bere familiak, Espainiatik ihes egin behar izan zuten arrapaladan,zuten guztia bidean utziaz.Ihes hori,Alikanteko portutik edo Katalunia eta Frantziako mugetatik egin zen gehien bat.Nafar asko,lehenik Gipuzkoara joan zen borrokara.Irun,Gernika,Durango, etab.en bonbardaketaz geroztik,euskaldun asko,Ebrora joan zen gerrara eta zorte izan zutenak, erbestera ihes egin ahal izan zuten.Milioika pertsona atera zen estatutik,gehienak Frantziara ihes egin zuten,baina baita,asko ere,Ingalaterra edo SESBra. Frantzian ez zuten uste bezain harrera ona izan. Gehienak,kontzentrazio zelaietan bildu ziren (Gurs-ekoa kasu).II.Mundu Gerra piztean,askok faxisten kontra borrokatu zuten eta milaka pertsonak,Ausitz,Matahusen... bezalako esterminio zelaietan amaitu zuten.

Kultura: ondorioak oso garrantzitsuak izan ziren.Errepublikarekin lan egin zuten maisu gehienak klase gorrian gelditu ziren,atxilotuak edo fusilatuak izan ziren.Intelektual,artista eta zientifiko ospetsuenek ihes egin zuten (Picasso,Buñuel,A.Machado,Alberti,Otsoa...).Izen handiko pertsonen hilketak ere egon ziren (Lorca kasu).Frankismoak errepresioa,zentsura eta Elizaren kontrola berreskuratu zituen.Frakoren diktadurak, Errepublika garaiko "zilarreko kulturaren" amaiera suposatu zuen.

Ekonomia: erabat hondoratuta gelditu zen;petrolio eta ikatz erreserbak galdu ziren;populazio aktiboaren gutxitzea eman zen;trenbide eta fabrika asko gerran txikitu egin ziren,baita,etxebizitza asko ere... Frankismoaren lehen urteetan,"gorriak" moralki suntsituak eta ekonomikoki zigortuak izan ziren: desjabetuak,isunak ordaintzera behartuta, "*Batallones de Trabajo*" delakoetan esklabo hartuak...

Politika: Errepublikak suposatu zuen esperientzia demokratiko eta berritzailea eten egin zen.Horren ordez, errepresioa,askatasun falta eta funtsezko giza eskubideen zanpaketa ekarri zuen aro ilun luze bat hasi zen.Ekintza eta parte hartze politikoa ukatuak izan ziren.Emakumeak,II.Errepublikan eskuratutako lorpen guztiak (sufragioa,berdintasun juridikoa, emakumeen onespren soziala...),bertan behera gelditu ziren. Eta abar eta abar luze.

Nazioartean: 20 urteren buruan,Espainia isolatuta gelditu zen,AEBekin tratuak sinatu zituen arte.

GERRA NAFARROAN

NAFARROAKO PANORAMA EKONOMIKO ETA SOZIALA


Errepublikara garaian Nafarroa nagusiki **kontserbadorea** eta **katolikoa** izan zen.

Ekonomiari dagokionez, nekazaritza zen pisu gehieneko sektorea. Iparraldean, biztanleriaren gehiengoak nekazari txikia zen eta autokontsumoan oinarrituriko nekazaritzaz bizi zen. Hegoaldean, lur gehienak jabe handien esku zeuden (Erriberan batik bat) eta jornalarien lan baldintzak, tamalgarriak ziren. Errepublikak, jornalari hauentzako itxaropen izpia izan zen eta herri askotan, lur komunalak berreskuratu ziren (Nekazaritza Erreformaren ondorioz). Industrializazioa, Iruñea, Sakana eta Baztan-Bortziriko gune soil batzuetara mugatua zegoen.

Arazo sozial nagusia lurarena zen, Errepublikara garaian lurrik gabeko nekazari askok lur komunal edo "koralizak" lortu nahi izan zituzten. Hau, tirabira askoren ondorio izan zen. Izan ere, betiko agintari eta kazikeek, ez zuten amorerik eman nahi izan.

Indar politikoei dagokionen aipatzea, **karlistek eta monarkikoen**

pisu handiena zutela. Hauek nagusi ziren karlismoaren gune tradizionaletan (Lizarralde, Iruñerria, mendialdea...). **EAJK** alkatetza batzuk zituen gune euskaldun eta Lizarran. PSOE, Izquierda Republicana Erriberan izan zuten arrakasta gehien. Langile mugimendua (komunista, sozialista nahiz anarkista), latifundio handiko guneetan eta industria zonaldeetan nabarmendu zen: Erriberan, Sakanan, Iruñerrian... Errepublikara garaian sindikalismoak Nafarroan, inoiz ezagututako indarra lortu zuen. Zonalde hauek izango dira halaber, altxamenduaren ondotik, errepresio latzena pairatuko dutenak.



ERROAN

1936. ean, Nafarroara gobernadore zibil berria bidali zuten: Emilio Mola jenerala. Fronte Popularreko gobernu zentralaren kideek, konspirazio militar bat zegoen susmoa zuten eta Iruña, arazo politikoetatik urrun zegoen lurralde zela pentsatu zuten. Erabat okertua zeuden ordea: Molak Iruñetik antolatu baitzuen estatu kolpea.

Estatu kolpea eman aurretik, Molak karlisten babesa eta laguntza ziurtatu zituen. Hasieran, eztabaida gogorrak izan zituzten: zein bandera aukeratu, erregimen eredu... Azkenik ordea, adostasun batera iritsi ziren eta Calvo Sotoloren heriotzaren ostean, Nafarroako Erreketek Molari estatu kolpean militarrekin bat egingo zutela zin egin zuten. Uztailaren 16an, Molak erreketekin Iratxeko monasterioan bilduta, kolpearen azken nondik norakoak itxi zituen. Lizarrako alkate jeltzaleak, Fortunato Agirre, bilera ezkutu eta susmagarri hauen berri eman zion Gobernu Zentralari. Gobernu buruak ordea, ez zuen jaramon egin eta ez zuen ezer berezirik agindu (kolpistak ez ziren atxilotuak izan).

Molak, militarren, karlisten... eta Diario de Navarra egunkariko zuzendariaren laguntza eta babesarekin kontatu zuen, zeinean, Uztailaren 18an gerra manifestua argitaratu zen. Iruñeko Gotzaina (Marcelino Olaetxea), hasieran gerraren piztea gaitzetsi eta tropa karlisten bedekatzua ukatu bazuen ere, azkenean, "etsai komunaren aurka batzeko" deialdia egin zuen. Apaizen artean ere, Nafarroan gehienek matxinoen alde egin zuen. Nafarroako lur jabe eta oligarkiak ere, berehala bat egin zuen nazionalen alde, haien interes propioak babestearen trukean. Horrela, Eliza, Karlistak eta Oligarkia nafarrak bat eginda, masakreaki ekin zioten. Molak hasieratik argi utzi zuen, kolpea bortitza izan behar zela. Molaren hitzetan:

Molak 1936ko maiatzaren 25ean: *se tendrá en cuenta que la acción ha de ser en extremo violenta para reducir lo antes posible al enemigo, que es fuerte y bien organizado. Desde luego, serán encarcelados todos los directivos de los partidos políticos, sociales o sindicales no afectos al movimiento, aplicándoles castigos ejemplares a dichos individuos para estrangular los movimientos de rebeldía y huelgas.*

Mola. Uztailaren 19an: *hay que sembrar el terror, hay que dejar la sensación de dominio eliminando sin escrúpulos ni vacilación a todos los que no piensen como nosotros.*

Nafarroan erresistentzia txikia izan zuen militarren kolpeak⁴. Izan ere, errepublikanoak ustekabean eta armarik gabe harrapatu zituen (Iparraldean, askok Frantziara ihes egin zuten). **Errepresioa ordea, oso gogorra izan zen** ezkerreko alderdikide eta Errepublikako sinpatizanteekin. Indarkeri hau batez ere, Erriberan eman zen (PSOE, UGT, FTT sindikalisten... indar guneetan). Fusilamendu gehienak, gerraren lehenengo hilabeteetan eman ziren: epaiketarik gabeko erailetak, San Kristobalen atxilotutakoen fusilamenduak... **Nafarroan, 3500 pertsona** hil zituzten. Hildako gehien izandako udalerrriak: Iruñea (300), Lodosa (133), Mendabia (99), Azkoien (89), Corella (87), Sartaguda (84), Milagro (78), Azagra (71), etab. Hildako gehienak, fosa komunetan edo errepede bazterretan utzi zituzten.

⁴ Lodosa, Mendabia... bezalako herrietan, erresistentzia egon zen, modu bortitzean zapaldua izan zena. Bi herri Hauek, alargunen herriak izendatzen dira.